

Hordigarri



**Itzea URKIZU
ARSUAGA**

Kulturak horditutako aje-egun batetik bestera doan denbora da abendua. Ganda leihoetan, txapa berokian, minberatutako behatzak abarke-tan. Hilabete zirrargarri bezain estresagarria, agendak errenkadan jartzzen dizkigun hitzorduak merezi beza-la gorpuzteko.

Inon pasio kolektiboei idatzitako odarik baldin bada, ez da urruti ibiliko gure abenduaren deskribapenetik. 'Gure' diot, nahiz eta ez dakidan lehen pertsonako plural horretan denok to-kirik ba ote dugun; batzuek tokia egin izanak beste zenbaiten azkura sortu ote duen. Baina aitortuko dut neroni naizela euskaltzale finaren abenduari oda idatziko liokeena, erromantizismo gehiegizkoz bizi baitut urte amaiera.

Pentsa, beraz, Durangoko Azokaren barrunbeetara estreinakoz gerturaztea zer izan den: zurrumbilo ederra. Imajinatzea euskarazko milaka hitz nola irakurriak, gozatuak, azpimarra-tuak eta tolestuak izango diren. Edo, ikustea, nik lehen bulkadan sekula aukeratuko ez nituzkeen liburuei askok bigarren ilaratik besoa luzatu die-tela.

Irudi hori memorian izozten, otu zitzaidan denbora daramadala, ia erabat, idazle emakumeen literatura irakurtzen. Nire burmuin emozionalak behar duela haien ahotsetara, kontatzeko moduetara eta gaietara jotzea; hautu bera egin duela burmuin arrazionalak ere. Sinplea bezain primiti-boa baita norbere errealtatea beste inoren ahotsean entzuteak sortzen

duen lasaitua: haien unibertsoetan kabitzen da nirea.

Halakoz josia izan da aurtengo BTN. Pandemia osteko txapelketa berantia-rra izatera zetorrena, bertsolaritzaren paradigma-aldaketa lekukotuko duen txapelketa izango baita egiazki. Eta ez naiz hiru emakume finalistaz ari: ari naiz begirada berriez, kode aldaketa batez. Aspaldi urratzen hasitako bidea zabaltzen ari diren guztiez.

Lotsa pixka bat ematen dit azken urteotan gutxien jarraitu dudana txapelketaz idazteak. Baina, tira, bertso saioak nahieran ikustea salbazio jainkotiarra da ia, bi urteko haurraren ama ere baden emakume okupatua-rentzat. Eta hori ere kabitzen da 'gure' unibertsoetan.

Hordi gaitzala finalak! •

Txapelketako istorio batzuk



**Maider IANTZI
GOIENETXE**

Txapelketa batean ezagutu nuen gerora urtero bisitatu nuen landetxe goxoa. Jabea etxeko zapa-tiletan etorri zitzaidan bila. Bertsozaleak dira haiek ere eta saioak komentatzen genituen. Bertze txapelke-ta batean, mendi punta batean amaitu nuen, kotxeko gurpilak lohi tartean tra-batuta. GPSari segika, gero eta bide es-tuago eta aldrebesagoetan bueltaka ha-rrapatu ninduen gauak, oinak dardarka pedaletan. Argiekin keinuak egin nituen eta baserritar bat hurbildu zitzaidan be-re linternarekin. Konpainia egin zidan, eta erreskatatzera etorri zen lagunari ar-gibideak ematen lagundu. Oraindik senti dezaket lagunaren besoetan bilduta har-tu nuen lasaitua.

Puntuazioa eta agurrak aditu eta fron-toi eta kiroldegiak husten direnean tap-tap-tap teklatuan gelditzen nintzen kro-nika idazten, bertze lau katurekin batera, desmuntatze guztiaren eta bat-bateko tenperatura jaitsieraren lekuko, batzue-tan eskuak hotzez motelduak eta nor-malean ezpainak txokolatez bustita.

Entzule gisa, berriz, lasterka ibili izan naiz BECeko pasilloetan, lehen lerroetan jartzeko, eta eskuak erre zaizkit txaloka. Buelta eman dit bihotzak. Burua kargatu zait tentsioagatik, bertsolariekin batera sortzen saiatu naizelako.

Bertze batzuetan, sofan, manta eta be-rendua magalean barneratu naiz gaieta-tik tiraka asmatutako mila eta bat isto-riotan.

Gertakari handia izan da niretzat as-paldian txapelketa, udazkena alaitu dit. Aurten, zatika baino ezin izan dut jarrai-tu, etxetik, Gheko apoarekin eta Masha eta hartzarekin tartekatuta. Ohartzen naiz semeak eta biok berdina nahi dugu-la, ipuinak entzutea, eta biok antzera hunkitzen garela. Unax bularrean, Alaia-ren ganbarakoarekin bete-betean identi-fikatu nintzen, eta berekin kantatu nuen «hartzazu lasai titia eta lasai egin negar/ta nahi dugun erritmoan askatuko dugu elkar», indartuta, momentu horretan nagoelako orain. Norbere bizipenen ara-bera tekla batekin edo bertzearekin uki-tuko gaituzte gehiago, baina niretzat txapelketa, eta zabalago bertsoa, beti da ikasketa iturri atsegin eta lagun. •